

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakariak Eguberrietan zehar familia nafarrek hartutako haur ukrainarrei harrera egin die

Iragan abenduaren 17an iritsi ziren Arco Iris Solidario GKEaren bidez

Jueves, 12 de enero de 2012

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcina Angulok eta Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriako kontseilari Elena Torres Mirandak, Arco Iris Solidario GKEaren bidez iragan abenduaren 17an Nafarroara heldu ziren 26 haur ukrainarrei (Txernobilekoak) harrera egin diete gaur Nafarroako Jauregiko Tronu Aretoan.



Ukrainako haurrak Barcina Lehendakaria eta Torres kontseilariaren alboan.

Lehendakariak haur horiei Nafarroako Jauregian egin die ongietorria, eta adierazi du ilusia egin diola aurpegi batzuk ezagunak zituelako, haien artean, beste batzuetan Nafarroan izan diren haurrena. Halaber, Arcoiris erakundea betetzen ari den lana baloratu du; 25 urte betetzen dira Txernobilgo hondamendi nuklearra gertatu zenetik, eta haren oroimenezko hitz batzuk esan ditu Lehendakariak.

Barcina Lehendakariaren batera, Arco iris Solidario erakundeko presidente Nerea Corera-k ere hitz egin du, eta baita Tatiana Gaidyyenko haurrak ere; azken honek harrera-familien eskuzabaltasuna eskertu du.

Ekitaldiaren ostean, umeei aperitibo bat eman zaie Jangela Aretoan, eta intsignia bat, soin-uhal gorri bat eta txano bat oparitu zaizkie.

Arco Iris Solidario 1996an sortu zen GKE bat da, eta herri nahiz kultura askotako pertsonen arteko bizikidetzaz erraztea du helburu eta, bereziki, hondamendi ekologikoen ondorioak pairatzen dituzten haurrena eta baita baldintza eskasetan bizi direnena ere.

Beren helburuak dira:
udan nahiz Eguberrietan
Ukrainako umezurtegieta bizi
diren haurrak hartzea,
Txernobilgo hondamendi
nuklearrak kaltetutakoak;
premiatzko materiala aldia
behin bidaliz laguntzea; sortzen

diren ekipamendu-arazoak konpontzeko diruz laguntzea eta
behar gehien duten umezurtegieta berrikuntzak egitea.

Urtero, familia nafarrek haur ukrainarrak aldi baterako
hartzeko kanpaina antolatzen du GKEak udako eta
Eguberrietako oporraldietan. 6 eta 15 urte arteko haurrak dira, eta umezurtegieta bizi dira gabezi
material nahiz afektibo handiekin, Txernobilgo ezbehar nuklearraren ondorioetako batzuk pairatu
dituztenak.



Barcina Lehendakaria hitz batzuk esaten
Txernobilgo haurrei egindako harrera-
ekitaldian.

Harrerak ez du inoiz haurra adoptatzeko aukerarik ematen. Helburua haur horiei mediku-zainketa, elikadura
egokia eta maitasuna ematea da. Harrera-aldian higie eta osasuneko ohiturak transmititzen eta irakasten
saiatzen da, arlo horretan era autonomoan aritzeko aukera emango diena; ingurune egokia eskaintzea
kontrako ingurune batean (janari gutxirekin eta bizi-kalitate eskasarekin) bizitzeak dituen ondorio txarrak
gainditu ahal ditzaten; haurren organismoa indartzea gaixotasunen aurrean, eta Nafarroa nahiz
Ukrainaren arteko pertsonen arteko harremanetan oinarritutako loturak sortzea.

GKEaren arabera, "Ukrainako umezurtegi gehienek urte asko dute eta bizitzeko gutxieneko
baldintzak ere ez dituzte. Gobernu ahalegina egiten ari da birgaitzeko, baina haietako asko oraindik ere
egoera eskasean daude". Arco Iris Solidarioren zenbait proiektuen helburua, hain zuzen, bainugela,
sukalde eta jangelak higie-egoera onetan jartzea da. Berotzeko arropa eta premiatzko produktuak ere
igortzen zaizkie.

Esperientziaren balantzea oso ona da. Gaztetxoak, oro har, arreta jartzeko arazoekin datoz, asmo
gutxirekin, edo muturreko ohitura eta jokabideekin (oso aktibo edo erabat gogorik gabe), eta beraren
egoera fisikoak hobera egiten du Nafarroara etortzen direnean. Itzulerarako baliagarriak zaizkion ohitura
sozial eta higienikoak hartzen dituzte eta, gainera, beren autoestimua eta gaitasunak sendotzen dira.

Zenbait zifra

Lan egin den 14 urte hauetan 200 umetik gora hartu dituzte familia nafarrek. 40 familia-unitate baino
gehiago honako alderdi hauetat arduratzen dira: harreraz, aisialdiko ekintzak egiteaz nahiz osasun-
normalizazioaz, etengabeko arretaz eta laguntzaz; horrez gain, hiru pertsonaz osatutako jarraipen-batzorde